

**2023KO APIRILAREN 25EAN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2023ko apirilaren 25ean arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*2023-03-28ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO MARTXOAREN 24TIK 2023KO APIRILAREN 19RA (2023/74 - 2023/102).

Alkatetzak 2023ko martxoaren 24tik 2023ko apirilaren 19ra bitartean (2023/74 - 2023/102) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2023KOIR0001 CONSTRUCCIONES APLIBUR SL-REN ESLEIPENAREN ADJUDI-KAZIOA ONARTZEA.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du, nola Ostatuaren obra zibilaren lizitazioa martxan jarri zen eta empresa bakarra aurkeztu dela eta, kontratua formalizatzeko organo erabakiorra Udalbatza denez hori erabaki behar dela,
Gaineratu du obraren iraupena 6 hilabetekoa izango dela.



2023KOIR0001

ALKATE DEKRETUA

GORKA MURUA MACUSO jaunak, Irurako Udaleko alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

IKUSIRIK

LEHENA: 2023ko martxoaren 16ko Ez-Ohiko bilkuran onartu zen San Migel plaza 11, baxuan ostatu berria egiteko obra kontratuaren baldintza administratibo partikular eta plegu teknikoak esleitzeko prozedura ireki arrunta.
Kontratatzaile Profilean 2023ko martxoaren 17an iragarkia argitaratu zen, Udal Kontratatzaile Plataforman argitaratuz.

BIGARRENA: Eskaintzak aurkezteko epea amaitu zen eta epe barruan lizitatzailerik 1 aurkeztu zen:

- CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L. **B09588740**

HIRUGARRENA: Kontratazio Mahaia 2023ko apirilaren 13an bildu zen 1. eta 2. kartazalak ireki ondoren Aitorpen agiriak behar bezala aurkeztuta zeudela ziurtatu zen.

LAUGARRENA: Kontratazio Mahaia 2023ko apirilaren 18an bildu zen. Aurreko bilkurako akta onartu eta gero 3. gutun-azala ireki zen. Udal Arkitekto teknikoak Construcciones Aplibur S.L.k egin duen eskaintzak pleguek ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatu du.

Eskaintza, hau izan da:

IRIZPIDE AUTOMATIKOAK

ENPRESAK AURKEZTUKOAK (3. kartazaleko eskaintzak)

ENPRESA	PREZIOA
Construcciones Aplibur S.L.	334.762,52

Guzti hori ikusita

ERABAKI DUT

LEHENA: Construcciones Aplibur S.L-k eginiko eskaintza izendatzea eskaintza onena. 276.663,24 euro (BEZ gabe) + 58.099,28 euro (%21 BEZ), denera **334.762,52** euro (BEZ barne) prezioan eta kontratua burutu ahal izateko honako gastu hau onartzea:
334.762,52 euro (BEZ barne), 1 0000.683.165.00.00 2022 - 2023 aurrekontu aplikazioaren kontura.

BIGARRENA: Construcciones Aplibur S.L.ri erabaki honen berri ematea eta errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 egun baliouduneko epean oinarri administratiboetako 7.2. klausulan zehazten den behin-betiko bermea eta 9. klausulan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan:

Behin betiko bermea: **13.833,16** euro.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri lizitazioan partehartutako guztiei, Hirigintza sailari eta Kontu-hartzailletza sailari ematea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena Alkateordeak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua. Iruran

Gorka Murua Macuso
Alkateak
Arrizabalaga Gainza

Nire aurrean
Irantzu

Idazkariak

Elektronikoki sinatua

Elektronikoki sinatua

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

4.- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETAK ONARTZE-KO PROPOSAMENA.

Alkateak hartu du hitza eta aurrekariak azaldu ditu, aurreko legegintzalditik datorren gaia dela eta aldaketen arrazoiak 3 dira, batetik Gipuzkoako Foru Araura moldatu behar delako, bestetik, Udalen egiten dituzten ekarpenak eta estatutuetan jasota dagoen modua ez datorrelako bat eta gaztelaniazko bertsioan genere ikuspegiko idazkera txertatzea. Azkenik, mankomunitateak, aurrerantzean bestelako zerbitzu amankomunatu batzuk eman nahiko balitu, aukera irekia uztea.

Ibilbide honetan Alderdi Sozialistak estatutuei 18 alegazio ezarri zizkion eta batzuk onartuak geratu ziren.

Mankomunitatean talde bat sortu zen aldaketaren lanketa egiteko eta jarrian dauden artikuluen aldaketa proposatzen da oraingo honetan. Jarraian bozketara pasa dira udalkideak.



**TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETA PROPOSAMENAREN ONARPENA.
ERABAKI PROPOSAMENA**

AURREKARIAK

- 1.- 2019ko urriaren 24an egindako bilkuran, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen estatutuen aldaketa jardunbideari hasiera ematea eta hori bideratzeko aholkularitza juridikoa kontratatzea.
 - 2.- 2020ko uztailaren 13an, Batzarrak estatutuak berritzeko proiektuaren lanketa zerbitzua adjudikatu zuen.
 - 3.- Batzarrak, 2020ko urriaren 8an egindako bileran, erabaki zuen estatutuak berritzeko mahai teknikoa izendatzea, guztiak Batzorde Iraunkorreko kideak.
 - 4.- 2022ko martxoaren 14an estatutuak aldatzeko proposamena aurkeztu zen Batzarrean.
 - 5.- 2022ko azaroaren 7an, Batzarrak hasierako onespina eman zion Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketari.
 - 6.- Estatutuak aldatzeko proiektua jendaurrean jarri zen hilabete batez, 2022ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (215 zk.) eta kide diren udalen iragarki tauletan argitaratutako iragarkien bidez.
- Jendaurrean erakusteko izapidean hiru alegazio idatzi aurkeztu ziren: Berrobiko Udalarena, Larraulgo Udalarena eta Andoaingo Udaleko talde sozialistarena.
- 7.- 2023ko urtarrilaren 30ean, Batzarrak alegazio horiek ebatsi, estatutuak aldatzeko proiektua onetsi eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, dagokion txostena egin zezan.
 - 8.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena egin zuen, nahitaezkoa eta ez loteslea, 2023ko martxoaren 20an.
 - 9.- 2023ko apirilaren 3an, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere txostenean proposatutako aldaketa gomendioak txertatu ondoren, mankomunitateko udaletara igortzea, beren udalbatzek behin betiko onetsi ditzaten.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Eskumena

Udalbatzak du eskumena, estatutuen aldaketa onartzeko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. Artikuluaren b) eta p) atalek eta Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen 60 artikulua xedatutakoaren arabera.

Aldaketa hau onartzeko gehiengo osoa behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen

apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 g) artikulua araberera.

Araudia

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: 22, 44 eta 47 artikulua.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutua onartzen duena: 37.3 c) artikulua.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 101-103 artikulua.

Azaroaren 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Osoko Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foro organoen arteko harremani buruzkoa: 7 a) 3 artikulua.

Apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen: 1-17 artikulua; 29 eta 30 artikulua, besteak beste.

Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuak 60 artikulua.

128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaitzuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena 3.3 d) 1 artikulua.

Gaiaren azterketa

Estatutuak aldatzeko arrazoiak dira:

- 1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauari egokitzea, bere xedapen iragankor bakarrak agindu bezala.
- 2.- 56. artikulua aldatzea, udalen ekarpenak kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideak estatutuetan islatzeko.
- 3.- Genero ikuspegia txertatzea: idazketa aldetik gaztelaniazko bertsioa bere osotasunean berrikusi eta, oro har, gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna arautzeko legeak isla izan dezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena eman du.

Prozedura

Bi araudi uztartu behar dira:

Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen 60. Artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaiandiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru araua.

Bi araudiak uztartuta Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketa prozedura ondorengoa da:

- a) Estatutuen aldaketa proposatzea Batzarrari dagokio, ukituko duen alderdia zehaztuz.

- b) Aldaketa proiektua egitea Batzorde iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari.
- c) Batzarrak onartzea, gehiengo soiluz, eta gainera, gehiengo soil horrek, gutxienez, Mankomunitateko udalen erdia ordezkatu beharko du.
- d) Erabakia jendaurrean erakustea hilabeteko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta doakien udaletxeetako iragarki tauletan erakutsiz.
- e) Batzarrak erabakiko ditu alegazio, eragozpen eta oharpen horiek.
- f) Horren ondoren, estatutuen aldaketa Foru Aldundiaren iritzira makurtuko da epe berdinean, eta hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.
- g) Txosten hori egin bada edo horretarako arauzko epea iragan bada, edukia ikusi ondoren sustatzaileak beharrezkotzat jotzen badu, dei egingo dio berriro Batzarrari estatutuetan antzeman diren irregulartasunak zuzentzeko.
- h) Mankomunitateko udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik.
- i) Estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Tolosaldeko mankomunitateak bete ditu estatutuen aldaketarako prozedura betekizunak.

Idazkariak egin du alde zuzeneko txostena, 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 3.3 d)1 artikuluan eskatzen duena.

PROPOSAMENA

Lehenengoa: Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen aldaketa onartzea, artikuluz artikulua, genero ikuspegia txertatuz gaztelaniazko bertsioan.

Zehazki, ondorengo artikulua aldatzea onartzen da:

ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA	ONARTUA GEHIENGO OSOZ	EZ ONARTUA
5. artikulua	5. artikuluari eransten zaio: Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua aplikatuko zaio.	X	
9. artikulua	Mankomunitatearen egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6 zk.an dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomankomunitatea.eus delarik.	X	
11. artikulua	Eransten zaio 4. Atala: Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	X	
16. artikulua	Eransten zaio 3. Atala: 3. Mankomunitatea bere organoen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzen saiatuko da,	X	

	non sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izango duen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren arabera.		
18. artikulua	Artikuluaren hasierari eranstean zaio: Batzarra udalerrri mankomunatu bakoitzeko ordezkari banak osatzen du	X	
19. artikulua	19. artikuluari eranstean zaio: Udalerrri bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak eratzen diren bakoitzean.	X	
23. artikulua	d) atala aldatzen da: d) Estatutuen aldaketan onespena	X	
25. artikulua	5. azpiatala eranstean zaio: 5. Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzeko, hautagaiak gehiengo osoz onartu beharko dira lehen bozketan, gehiengo soilarekin bigarren bozketan, eta adostasunik ez badago, lehendakariak hautatuko ditu.	X	
46. artikulua	3. azpiataleko a) puntua aldatzen da: a) Estatutuen aldaketa proiektua	X	
55. artikulua	55. artikuluari eranstean zaio: Estatutu hauetako 11.2 atalean aurreikusitakoa betez ematen diren zerbitzu berriak, Udalen eskariz, eskatzaileek soilik ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izango balira, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da. Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	X	
56. artikulua	56. artikuluen 2 eta 3 atalak aldatzen dira eta 4 eta 5 atalak eranstean zaizkio 2.- Udalen ekarpenak udalerrri bakoitzaren biztanle kopuruaren proportzioan eta udal bakoitzak eskatutako bilketa sistemaren arabera kalkulatzeko dira. Biztanle kopuruaren kalkulurako, Mankomunitateko kide diren udalerrietako erroldetan ofizialki erregistratutako biztanle kopurua erabiliko da. Kasuan kasuko udal-idazkariek ziurtagiri bat egingo dute urtero, eta ziurtagiri horretan adieraziko dute zein den dagokion zifra, idazkari guztientzat zehazten den egun zehatzean. 3.- Zerbitzu bakoitzari dagozkion udalen ekarpenak kalkulatzeko irizpideak, erak eta epeak garatu eta zehaztuko ditu Batzarrak botoen bi hereneko gehiengoarekin, gainera gehiengo horrek, gutxienez, mankomunitateko udalen bi heren ordezkari beharko du. 4.- Urteko aurrekontu proiektuak udalerrien urteko ekarpen finko eta aldakorrei buruzko azterlana jasoko duen eranskina barneratuko du. 5.-Ez ordaintzeak arduradun den udala eskubideez gabetzea ekarriko du. Mankomunitateak ez dizkio bere zerbitzuak emango horrelako kasuan dagoen Udalari bere obligazioak betetzen ez dituen bitartean. Horretarako,	X	

	<p>Batzorde Iraunkorrek diru sarrera egin dezan errekerituko dio Udalari eta hiru hilabeteko epean hala ez badu egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badu, Mankomunitateak ez dio zerbitzurik emango egun hartatik aurrera. Eskubideez gabeturiko Udalen ordezkariak ezin esku hartuko dute botazioetan, eta kasu bakoitzean beharko diren gehiengoaren kontaktetan ere ez dira kontuan hartuko. Udal horiek Batzorde Iraunkorreko partaide badira, eskubide gabe geratzearen ondorioz, Batzorde horretan dituzten eskubideak baliorik gabe geldituko zaizkie.</p>		
60. artikulua	<p>60. artikulua honela idatzita geldituko da: Estatutuen aldaketa burutzeko jarraitu beharreko prozedura ondokoa izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekimena ukituko duen alderdia zehaztuz dagokio: Lehendakaritzari edo Batzarreko legezko ordezkari kopuruaren herenari edo Batzorde iraunkorrari edo guztira zuzenbideko biztanleria 25.000 biztanle edo gehiagokoa daukaten bost Udali gutxienez. - Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaiokie proiektua egiteari. - Batzarrak estatutuen proiektua onartuko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz. - Proiektua onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta dagokion udaletako iragarki oholean jarriko da ikusgai hilabeteko epean. - Behin publikaturik Foru Aldundira bidaliko da honek informa dezan. Hilabeteko epean honen inguruko iritzirik ematen ez baldin badu, hau aldekotzat hartuko da. - Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik. - Erabakia onartuta, estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. 	X	
61. artikulua	61. Artikulua ezabatzen da.	X	
62. artikulua	Eransten zaio 6. Atala: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	X	
63. artikulua	63. artikuluari eransten zaio: Behin hau eginda, 6/2007 foru arauaren 10.3 artikulua arabera banatzeak, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak betetzea ekarriko du.	X	
64. artikulua	64. artikuluari eransten zaio: Desegiteko, 6/2007 foru arauaren 12 artikulua arabera, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak bete beharko dira.	X	

65. artikuluari	1. atalari eransten zaio: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu beharko da.	X	
Bigarren xedapen gehigarria	3. atala eransten zaio: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	X	
Zazpigarren xedapen gehigarria	Zazpigarren xedapen gehigarriari eransten zaio: Hortaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaiendiko Erakundeak Arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko da.	X	

Bigarrena.- Tolosaldeko mankomunitateari bidaltzea estatutuen aldaketa onartzen duen osoko bilkuraren erabakiaren ziurtagiria.

Lekua eta data

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

5.- LOATZO ELKARTEKO 2023KO UDAL EKARPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak aurrekariak azaldu ditu; eta 2023 udal ekarpena 54.870,71€koa izango dela adierazi du.

1. 2022ko ekitaldiko ekarpen likidazioa.

Ikusirik, Loatzo Udallerrien Mankomunitateko Estatutuen 11. 6 artikuluan zehazten dela, 2023ko lehen hiru-hilekoan, 2022ko udal ekarpenen kalkulua errepikatuko dela bere benetako doitzera.

Ikusirik, estatutuen 3. Artikuluan xedatzen dela Administrazio batzordearen ahalmena dela Mankomunitatea osatzen duten Udallerriei kuotak ezartzea eta aldatzea.

Ikusita kontu-hartzaileak 2023ko otsailaren 14an emandako txostena,

Hori guztia ikusita, Administrazio Batzordeak, aho batez, honako AKORDIOAK hartu ditu:

LEHENA.- Indarrean dauden Estatutuen araudia aplikatuz kalkulaturako 2022 ekitaldiko Udalen behin betiko ekarpenak onartzea:

UDALA	2022KO EKARPENA 01/12/2021	2022KO BEHIN BETIKO EKARPENA	DIFERENTZIA
IRURA	57.856,12 €	43.904,00 €	-13.952,12 €

BIGARRENA: Estatutuen 11.6 artikuluan zehazten den eran, behin betiko kuoten diferentziak saldo positiboak direnez 2023 ekitaldiari egozte, kuotak murriztuz.

EPEA	2023ko ekarpena	31/03/2023 1 kuota	30/06/2023 2.kuota	30/09/2023 3.kuota	2022ko diferentzia	31/03/2023 1.kuota erregulatzatua	31/06/2023 2.kuota erregulatzatua	31/09/2023 3.kuota erregulatzatua
IRURA	54.870,81.-€	13.717,70	13.717,70	13.717,70	-13.952,12	0,00	13.483,29	13.717,70

HIRUGARRENA: Loatzo udalerrien Mankomunitatea osatzen duten Udalei ebazpen hau jakinaraztea.”

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

6.- KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK:

6.1.- 2022 URTEKO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMAN.

Udal honetako Kontuhartzaileak,2022 (e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egin du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

TXOSTENA

Udalbatzarrak 2021eko abenduaren 16an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Udal honen 2022ko aurrekontua. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehetzen da:

Hasierako	2.582.065,00
Kreditu	0,00
Kreditu	1.565.578,33
Baliogabetzearen ziozko	0,00
Kreditu	459.479,50
	<hr/>
Behin betiko	4.607.122,83
aurrekontua:.....	

Aurrekontu horren exekuzioan ondorengo hauek azpimarratu behar dira:

- Alde batetik, Udal Finantzaziorako Foru Funtsa: Gobernu Kontseiluak 2023ko otsailaren 15ean egindako bileran onartu egin zuen 2022ko Udal Finantziarioko Foru Funtsa (UFFF) kitatzea, 588.224.785.306.505 eurotan. Kopuru horretatik %99,85 (587.342.448 euro) udalei dagokie eta gainerako %0,15 (882.337 euro) Eudeli. Bestetik, 2022 urtean zehar udalak eta Eudel UFFFren kontura 351.974,91 mila euroko diru kopuruak jasotzen joan dira.

Udalaren kasuan:

- Hasierako aurrekontua 1.407.900 €
- Likidazioa 1.457.244 €

- Saldoa **+49.345 €**

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluak, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:

KAPITULUA	2022 EKITALDIA			2021 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	1.046.413,50	967.070,72	92,42	935.500,00	930.242,42	99,44
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	967.092,34	781.764,41	80,84	748.800,00	660.889,85	88,26
3 - Finantza gastuak	10.000,00	1.092,56	10,93	16.000,00	775,81	4,85
4 - Transferentzia arruntak	475.201,24	381.092,42	80,20	429.200,03	399.908,35	93,18
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	6.556,76	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	2.031.158,99	1.036.578,52	51,03	1.727.554,28	249.131,33	14,42
7 - Kapital transferentziak	65.200,00	58.951,68	90,42	55.000,10	45.000,00	81,82
8 - Finantza aktiboak	500,00	0,00	0,00	500,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	5.000,00	0,00	0,00	5.000,00	0,00	0,00
GUZTIRA	4.607.122,83	3.226.550,31	70,03	3.917.554,41	2.285.947,76	58,35

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa dela-eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira:

Aurrekontuaren aplikazioa	Deskribapena	Onartutako obligazioak
1 0000.622.459.00.00 2021	Kaleko komun publikoa	60.000,00
1 0000.622.920.00.00 2021	ERAIKINAK ADM. OROKORRA	769.380,67
1 0000.421.162.10.00 2022	Hondakinen bilketa zerbitzua	159.997,27
1 0000.622.333.00.00 2022	Erabilera anitzeko zerbitzuak	53.991,36
1 0000.781.321.00.00 2022	Dirulaguntza hitzartua: Irurako ikastola	58.951,68

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

GAUZATZE FASEA	2022 EKITALDIA		2021 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligazio onartuak (O fasea)	1.036.578,52	51,03	249.131,33	14,42
Gastu erabiliak (D fasea)	1.893.322,58	93,21	1.578.376,92	91,36
Gastu baimenduak (A fasea)	1.903.970,58	93,74	1.678.302,99	97,15
Kredituak, guztira	2.031.158,99	100,00	1.727.554,28	100,00

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentajea oso handia izan dela.

2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatiko ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:

KAPITULUA	2022 EKITALDIA			2021 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1 - Pertsonal gastuak	967.070,72	966.993,28	99,99	930.242,42	930.242,42	100,00
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	781.764,41	739.394,34	94,58	660.889,85	595.163,45	90,05
3 - Finantza gastuak	1.092,56	1.092,56	100,00	775,81	775,81	100,00
4 - Transferentzia arruntak	381.092,42	362.047,21	95,00	399.908,35	360.932,97	90,25
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	1.036.578,52	984.085,60	94,94	249.131,33	235.680,46	94,60
7 - Kapital transferentziak	58.951,68	58.951,68	100,00	45.000,00	45.000,00	100,00
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	3.226.550,31	3.112.564,67	96,47	2.285.947,76	2.167.795,11	94,83

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea oso handia izan dela.

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarreraren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

KAPITULUA	2022 EKITALDIA			2021 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1 - Zuzeneko zergak	649.260,00	761.376,26	117,27	625.000,00	643.274,43	102,92
2 - Zeharkako zergak	30.000,00	2.979,29	9,93	30.000,00	29.237,07	97,46
3 - Tasak eta bestelako zergak	305.230,00	436.991,47	143,17	270.557,00	326.502,83	120,68
4 - Transferentzia arruntak	1.591.425,00	1.754.699,04	110,26	1.296.843,00	1.553.750,50	119,81
5 - Ondare sarrerak	3.500,00	82.365,22	2.353,29	5.000,00	5.750,37	115,01
6 - Inbertsio errealak besterenganatzetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferentziak	1.200,00	119.307,92	9.942,33	57.000,00	88.271,69	154,86
8 - Finantza aktiboak	2.026.007,83	0,00	0,00	432.654,41	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	500,00	701.204,72	140.240,94	1.200.500,00	0,00	0,00
GUZTIRA	4.607.122,83	3.858.923,92	83,76	3.917.554,41	2.646.786,89	67,56

Bereziki, gauzatze portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

a) Diputazioko Udal Foru Funtsaren likidazio positiboa : **+49.345 €**

b) Kapital Transferentziak: Erein 2019, 2020, Irisgarritasun 2018 eta 016-NAT-220 : denak jaso ditugu.

Beraz, oro har esan daiteke exekuzioaren portzentajea oso handia izan dela.

4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

KAPITULUA	2022 EKITALDIA			2021 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%
1 - Zuzeneko zergak	761.376,26	694.811,25	91,26	643.274,43	612.248,71	95,18
2 - Zeharkako zergak	2.979,29	1.754,39	58,89	29.237,07	29.237,07	100,00
3 - Tasak eta bestelako zergak	436.991,47	359.459,33	82,26	326.502,83	312.580,24	95,74
4 - Transferentzia arruntak	1.754.699,04	1.646.031,19	93,81	1.553.750,50	1.325.932,56	85,34
5 - Ondare sarrerak	82.365,22	79.666,58	96,72	5.750,37	4.185,34	72,78
6 - Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferentziak	119.307,92	57.387,91	48,10	88.271,69	0,00	0,00
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	701.204,72	701.204,72	100,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	3.858.923,92	3.540.315,37	91,74	2.646.786,89	2.284.183,92	86,30

Kapital Transferentziak: Erein 2019, 2020, Irisgarritasun 2018 eta 016-NAT-220 : denak jaso ditugu.

Halere, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea oso handia izan dela.

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINKETA BUKAER. SALD.	ORDAINKETA PORTZENTAJEA
2020	5.740,74	0,00	5.740,74	0,00	100,00
2021	112.411,91	0,00	112.411,91	0,00	100,00
GUZTIRA	118.152,65	0,00	118.152,65	0,00	100,00

Abenduaren 31n ordaindu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira: Denak onartu dira.

6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA-PORTZENTAJEA
2015	3.972,49	3.972,49	0,00	0,00	0,00
2016	18.012,11	5.989,32	0,00	12.022,79	0,00
2017	5.544,09	0,00	0,00	5.544,09	0,00
2018	8.055,91	1.898,68	7,00	6.150,23	0,00
2019	39.862,83	2.693,97	32.005,07	5.163,79	80,00
2020	10.415,36	300,00	659,58	9.455,78	6,00
2021	362.602,97	0,03	353.850,88	8.752,06	98,00
GUZTIRA	448.465,76	14.854,49	386.522,53	47.088,74	86,19

Abenduaren 31n kobratu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira: zergen eta tasen zorrak.

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
0000.120.153.20.00	Oinar. soldata. Brigada/Eraikin garb F	15.000,00	5.705,11
0000.120.920.00.00	Oinarrizko soldata. Idazkaritza. F	55.199,50	36.303,57
0000.201.920.00.00	Apaiz etxeko lokalen alokairua	3.000,00	3.000,00
0000.201.924.00.00	Herriko Ostaturia partehartze prozesua	2.000,00	1.944,35
0000.211.342.00.00	ERAIKINAK. KONPONKETAK KIROL INSTALAZIOA	29.543,90	14.835,14
0000.215.920.00.00	Material informatikoa, konponketak	5.000,00	1.186,46
0000.221.165.00.01	Argindarra: Argiteria publikoa	16.500,00	15.719,17
0000.221.231.00.01	Argindarra: Gizarte zerbitzuak	1.100,00	798,95
0000.221.231.00.03	Gasa: Gizarte zerbitzuak	1.500,00	1.231,78
0000.221.323.00.01	Argindarra: lehen hezkuntza	600,00	529,53
0000.221.323.00.03	Gasa: lehen hezkuntza	380,00	380,00
